



UNITATEA	GIZA BALIABIDEAK
XEDEA	Obra, zerbitzu eta mantentze-lanen arduraduna ordezkatzeko hautaketa-prozesua: onartu eta baztertuen behin behineko zerrenda onartzea

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako azpisaileko zinegotzi delegatua Miren Josune Sanz Vidalerena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Obra, zerbitzu eta mantentze-lanen arduraduna aldi baterako ezintasun egoeran dago. Beharrezkoa ikusten da plaza behin-behineko izaeraz ordezkatzea.

BIGARRENA.- Udalak ez du lan-poltsa propiorik eta beste udaletan ere ez dago perfil honetako lan-poltsarik.

HIRUGARRENA.- Ildo horretatik, lanbide bidez argitaratu zen arduradun lanpostua betetzeko deialdia. Bost laneguneko epean 11 hautagaik eman dute izena.

KONTUAN HARTURIK

Hautagai horiek guztiek betetzen dituzte lan eskaintzan zehaztutako betebeharrak. Zehazki, honakoak:

- Nazionalitate espainiarra edukitzea, edo beste edozein estatutakoa, baldin eta Europar Batasunak formalizatutako nazioarteko itunen baten arabera aplikaziozkoa bada langileen joan-etorri askea, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean zehaztutako eran. Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.
- 16 urte beteta edukitzea.
- Ingeniaritza zibileko, industria ingeniaritzako edo antzeko ingeniaritzako gradua
- Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez



izatea. Baldintza hori dagokion unean egiaztatu beharko du lanpostu batean hastera deitutako izangaiak, azterketa medikua eginda udalak horretarako ezarria duen zerbitzuan.

- e) Diziplina-espediente bitartez inongo Administrazio Publikoetako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaikuntzarik ez izatea (erabatekoa zein berezia) enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, estatu horretan ez edukitzea desgaikuntzarik edo antzeko egoerarik, ezta estatu hartan Funtzio Publikoan jardutea galaraziko liokeen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ere.
- f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-azuziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

Horregatik, dekretu honen bidez onartuen behin behineko zerrenda ebatzi behar da.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartuen behin-behineko zerrenda onartzea:

AINHOA URBIZU URREAGA	C1
AMAIUR MIKEO ZABALO	C2
ANDER DIAZ ODRIUZOLA	C1
ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ	C2
GORATZ SOLOLUZE AIZPURUA	C1
HARITZ MARKAIDA VELASCO	C1
ITSASO MANTZIZIDOR GARATE	C2
IZARO EZEIZA KARRERA	C1
LORENA VAZQUEZ ROSA	C1
LUCIA MALCORRA AMUNDARAIN	C1
MARIA FURUNDARENA BALSERA	C1

BIGARRENA.- Hiru egun balioduneko epea ematea dagokion erreklamazioak aurkezteko.

Ez badago erreklamaziorik, behin betikotzat hartuko dira.

HIRUGARRENA.- Izendatzea oposizioko ariketa kalifikatuko duen epaimahaia, honela osatuko dena:



TOLOSAKO
UDALA

2026PDLP0003

Lehendakaria:

— Antton Rivero Urbistondo, titularra, Giza Baliabideetako arduraduna.

Mahaikidea:

— Andoni Amutxastegi Larrañaga, Obretako ingeniari teknikoa.

Idazkaria:

— Intza Larrañaga Odriozola, Giza Baliabideetako Teknikaria.

LAUGARRENA.- Probaren eguna finkatzea datorren 2026ko ekainaren 15ean (astelehena), goizeko 11:00etan, Tolosako Gorosabel eraikinean, Rondila kalea, 34.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Josune Sanz Vidal

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026PDLP0003-dekretua/decreto (TOLOSAKO UDALA)